

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA- CONSORCIO DE AGUAS DE ÁLAVA

**Aguraingo, Alegria, Lukoko kontzejua eta Egiletako kontzejua 2024ko ekitaldiko lehen hiruhilekoa edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifei dagokien kontribuzio-errola**

Aguraingo, Alegria, Luko eta Egiletako kontzejua 2024ko ekitaldiko lehenengo hiruhileko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifei dagokien errola prestatuta, publikoarentzat ikusgai jartzen da hamabost egun balioduneko epean, ALHAOn iragarpen hau publikatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek komenigarriak kontsideratzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ditzaten.

Epe hori igarota, erreklamaziorik egongo ez balitz, errola behin betiko onartutzat emango litzateke.

Edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifen kobratze-epeak:

A) Epe boluntarioa: 2024ko uztailaren 30tik irailaren 30ra, biak barne.

Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza-erakundeetan kargatuko dira 2024ko uztailaren 30an.

B) Kobratzeko epe exekutiboa: 2024ko irailaren 30etik aurrera hasiko da epe exekutiboa, errekaru exekutiboak sortuz, premia murriztu eta premia arruntekoak, Arabako Zerga Orokorri buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak adierazitako epeetan.

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Ribabellosa, 2024ko ekainaren 28an

*Presidentea*

**JULEN IBARROLA GOBANTES**